InfoBilbao

BILBOKO UDALA AYUNTAMIENTO DE BILBAO | Prentsa Kabinetea Gabinete de Prensa | Erkoreka Plaza, 1 48007 Bilbao
Tel. 94 420 52 61 / 94 420 52 94 / 94 420 35 19 / 94 420 59 93 / 94 420 30 93 | Fax: 94 420 52 16 | prensa@alcaldia.bilbao.eus | www.bilbao.eus

# BILBOK GOBERNANTZAKO BIKAINTASUNAREN EUROPAKO ZIGILUA JASO DU

- **Bilbo da, Gasteizekin batera, sari hori lortu duen 200.000 biztanletik gorako lehenengo euskal udalerria. Bi hiriburuekin batera, beste 4 euskal udalerrik jaso dute aurtengo ELoGE zigilua: Basaurik, Eibarrek, Andoainek eta Urnietak.**
- **Zigilu horrek tokiko gobernuen kalifikazio gorena ziurtatzen du, gobernu onaren, kalitatearen eta berrikuntza demokratikoaren 12 printzipioren arabera. Udalak giza eskubideekin, kultura-aniztasunarekin eta gizarte-kohesioarekin duen konpromisoagatik eta udal-zerbitzuen kudeaketa eraginkor eta efizientean duen erantzukizunagatik aintzatetsi da.**
- **Hautagai diren udalak Europa osorako tresna komunaren arabera autoebaluatzen dira, EUDELek euskal berezitasunera egokitutako 97 adierazlerekin.**

*(Bilbon, 2022ko urtarrilaren 19an).* Bilbok 2021eko Gobernantzako Bikaintasunaren Europako Zigilua lortu du. Ziurtagiri hori, *EloGe (European Label for Governance Excellence)*, Europako aintzatespenik handiena da tokiko gobernuentzat, eta bikaintasun-kalifikazioa egiaztatzen du, **gobernu ona, kalitatea eta berrikuntza demokratikoaren** hamabi printzipiotako zerrenda baten arabera.

Europako Kontseiluaren **autoebaluazio-sistema zorrotz batean** oinarritutako aintzatespena da, **udal-kudeaketa eraginkor eta efizientea bideratzea helburu duena, iraunkortasun-ikuspegiarekin**.

**Bilbok, Gasteizekin batera, zigilu hori lortu duen 200.000 biztanletik gorako lehenengo euskal udalerria da.** Bi hiriburuekin batera, EAEko beste 4 udalerrik jaso dute aurtengo ELoGE zigilua: Basaurik (Bizkaia), Eibarrek, Andoainek eta Urnietak (Gipuzkoa). Saritutako udalerrien zerrenda gaur argitaratu da EUDELek Bilbon duen egoitzan – Euskadiko Udalen Elkartea 2017an egiaztatu zen zigilua emateko Europako lehenengo eskualde-plataforma gisa –.

**Juan Mari Aburto** Bilboko alkatearekin batera, **Jorge Segurado** Urnietako alkateak, **Maider Lainez** Andoaingo alkateak, **Jon Iraola** Eibarko alkateak, **Asier Iragorri** Basauriko alkateak eta **Borja Rodriguez** Gasteizko zinegotziak saria jaso dute **Gorka Urtaran** EUDELeko lehendakari eta Gasteizko alkatearen eskutik.
Gainera, banaketa ekitaldian **Alina Tatarenko** Europako Kontseiluko Gobernantza buruak, ELoGEren erakunde bultzatzailea den aldetik, esku-hartze telematikoa egin du.

**Juan Mari Aburtok** azpimarratu du: "*aitorpen honek **gardentasun-, eraginkortasun-, efizientzia- eta berrikuntza-maila handienak dituzten Europako hirien buruan** jartzen gaitu, baina, aldi berean, gogorarazi behar digu ezin dugula eta ez dugula konformatu behar*". Ildo horretan, Aburtok gaineratu du: "***Bilbon lanean jarraituko dugu dagoeneko asmo handikoak diren baina gero eta zorrotzagoak diren estandarrei eusteko eta***

***aurrera egiteko. Baita gobernantza onaren balioak partekatzeko eta zabaltzeko ere, besteak beste, berdintasuna, parte-hartzea, kultura-aniztasuna edo gizarte-kohesioa edozein erakunde publikotan kudeatzeko oinarri gisa".***

**Gorka Urtaran** EUDELeko presidenteak nabarmendu duenez, tresna honek garrantzi handiagoa hartzen du **COVID-19aren** pandemiak bizkortu duen gizarte-eraldaketaren erronkei aurre egiteko: "*Zigilua da gure tokiko erakundeak indartzeko eta jasangarriago bihurtzeko tresnarik onena. Europak hobekien baloratzen duen ataletako bat gure erreakzio-gaitasuna da, une bakoitzeko premiei arintasunez erantzuteko, baita epe luzerako ikuspegia ere, oztopoei edo etorkizuneko krisiei aurrea hartzeko".*

## 12 PRINTZIPIO ETA 97 ADIERAZLE

Sailkapena **Gobernu Onaren 12 printzipiotan** oinarritzen da. Printzipio horiek Europako demokraziaren funtsezko balioak dira, eta bat datoz **Nazio Batuen GJHekin**:

**(1) Ordezkaritza eta bidezko hauteskundeak; (2) Erreakzio ahalmena; (3) Eraginkortasuna eta efizientzia; (4) Irekidura eta gardentasuna; (5) Zuzenbidezko estatua; (6) Jokabide etikoa; (7) Konpetentziak eta Gaitasunak; (8) Berrikuntza eta aldaketarako jarrera irekia; (9) Jasangarritasuna eta epe luzerako orientazioa; (10) Finantza kudeaketa ona; (11) Giza Eskubideak, kultura aniztasuna eta gizarte kohesioa; (12) Kontuak emateko beharra.**

Udal bakoitzak bere jarduketaren alderdi guztiak barne hartzen dituzten 97 adierazleri erantzuteko dauzkan probak aztertu behar ditu, bai antolamenduaren barruan, bai zerbitzugintzan eta gizartearekiko harreman estuan.

Aztertutako atalen artean daude, besteak beste, administrazio-izapideak, kontratazio-prozedurak, finantza- eta aurrekontu-kudeaketa, hautetsien jokabide etikoa, herritarrek parte hartzeko kanalak edo organoak, gardentasun eta berrikuntza publikoko tresnak, eta giza eskubideak sustatzea, berdintasuna, aniztasuna, inklusioa eta gizarte-kohesioa zeharkako ardatz modura hartuta.

## ELOGE EUSKADIN

ELoGE 2017an iritsi zen Euskadira, EUDELen eskutik, Europako **lehen eskualde-plataforma** bihurtu ondoren, bere lurraldeko udalerri guztietan zigilua eman ahal izateko. Hori lortzen lagundu zuen Euskadiko Udalen Elkartearen eta Europako Kontseiluaren arteko lankidetza-harreman estuak. Baterako lan horrek fruitua eman du estatu mailan aitzindariak diren ekimenetan, hala nola 2013an, tokiko hautetsientzako lehen jokabide etikoko kodea eta Gardentasunaren aldeko Udalen sarea, edo 2014an, tokiko finantzen Europako ebaluazioa.

2017. eta 2021. urteen artean ELoGEren lau edizio egin dira Euskadin eta, horietan, EAEko **hamabi udalek** lortu dute bikaintasun-ziurtagiria lortzea. Lau udalerrik bi aldiz lortu dute

InfoBilbao

zigilua, besteak beste Basaurik eta Urnietak, aurten berritu egin baitute. Edizio honek Bilbo, Gasteiz, Eibar eta Andoaingo kide berriak ekarri ditu.

ELoGE zigilua duten euskal udalak **tamaina guztietako** udalerriak dira:

- 10.000 biztanle baino gutxiago: Andoain, Legazpi eta Urnieta*
- 10.000-20.000 biztanle: Bermeo, Ermua* eta Laudio
- 20.000 – 70.000 biztanle: Basauri*, Eibar, Irun*, Leioa
- 200.000 baino gehiago: Bilbo, Gasteiz

** (ELoGE zigilu bi).*

# BILBAO RECIBE EL SELLO EUROPEO DE EXCELENCIA EN GOBERNANZA

- **La Villa es, junto a Vitoria-Gasteiz, el primer municipio vasco de más de 200.000 habitantes en conseguir esta distinción. Junto a las dos capitales, otros 4 municipios vascos han recibido el Sello ELoGE de esta edición; Basauri, Eibar, Andoain y Urnieta.**
- **Este Sello acredita la máxima calificación de los gobiernos locales según 12 principios de buen gobierno, calidad e innovación democrática. El Consistorio ha sido reconocido por su compromiso con los derechos humanos, la diversidad cultural y la cohesión social y su responsabilidad en la gestión eficaz y eficiente de los servicios municipales.**
- **Los ayuntamientos candidatos se autoevalúan en base a la herramienta común para toda Europa, con 97 indicadores adaptados por EUDEL a la especificidad vasca.**

(*Bilbao, a 19 de enero de 2022*)-. Bilbao ha obtenido el Sello Europeo de Excelencia en Gobernanza 2021. Esta certificación, *ELoGe (European Label for Govenance Excellence)*, es la más alta distinción a nivel europeo para los gobiernos locales y acredita la calificación de excelencia según una lista de **doce principios de buen gobierno, calidad e innovación democrática.**

Se trata de un reconocimiento basado en un **riguroso sistema de autoevaluación** del Consejo de Europa, **cuyo objetivo es orientar una gestión municipal eficaz y eficiente, y con enfoque de sostenibilidad.**

**Bilbao se ha convertido, junto a Vitoria-Gasteiz, en el primer municipio vasco de más de 200.000 habitantes en recibir este sello.** Junto a las dos capitales vascas, otros 4 municipios de Euskadi han recibido el Sello ELoGE de esta edición; Basauri, en Bizkaia, Eibar, Andoain y Urnieta, en Gipuzkoa.

La lista de municipios reconocidos se ha hecho pública hoy en la sede de EUDEL en Bilbao - la Asociación de Municipios Vascos se acreditó en 2017 como la primera plataforma regional europea para otorgar el Sello-. Junto al Alcalde de Bilbao, **Juan Mari Aburto**, **Jorge Segurado,** alcalde de Urnieta, **Maider Lainez,** alcaldesa de Andoain, **Jon Iraola,** alcalde de Eibar, **Asier Iragorri,** alcalde de Basauri, y **Borja Rodriguez**, concejal de Gasteiz, han recibido la distinción de manos de **Gorka Urtaran**, presidente de EUDEL y también alcalde de Vitoria-Gasteiz.

Además, la ceremonia de entrega ha contado con la intervención telemática de **Alina Tatarenko**, jefa de Gobernanza del Consejo de Europa como organismo impulsor del ELoGE.

**Juan Mari Aburto** ha subrayado que "*este reconocimiento que nos sitúa* ***a la cabeza de las ciudades europeas con mayores cotas de transparencia, de eficacia, de eficiencia y de innovación,*** *pero al mismo tiempo, ha de recordarnos que ni podemos, ni debemos conformarnos*", en este sentido, Aburto ha añadido que "*en Bilbao vamos a seguir*

*trabajando para mantener y avanzar en estándares ya ambiciosos, pero cada vez más exigentes y rigurosos. También para compartir y extender los valores de la Buena Gobernanza, entre otros, la igualdad, la participación, la diversidad cultural o la cohesión social como base de la gestión en cualquier institución pública*".

Por su parte, Gorka Urtaran, presidente de EUDEL, ha destacado que esta herramienta cobra mayor relevancia para afrontar las grandes transiciones que ha acelerado la pandemia de la COVID-19. "*El Sello es el mejor instrumento para hacer más fuertes y sostenibles nuestras instituciones locales. Uno de los apartados mejor valorados por Europa es nuestra capacidad de reacción, para responder con agilidad a las necesidades en cada momento, y también la visión a largo plazo, para anticiparnos a los obstáculos o a futuras crisis*".

**12 PRINCIPIOS Y 97 INDICADORES**

La clasificación se basa en **12 principios de Buen Gobierno**, que representan los valores fundamentales de la democracia europea, y **están alineados con los ODS de la Naciones Unidas:**

**(1) Representación y elecciones justas; (2) Capacidad de reacción; (3) Eficacia y Eficiencia; (4) Apertura y transparencia; (5) Estado de derecho; (6) Comportamiento ético; (7) Competencias y Capacidades; (8) Innovación y apertura ante el cambio; (9) Sostenibilidad y orientación a largo plazo; (10) Gestión financiera sana; (11) Derechos Humanos, diversidad cultural y cohesión social; (12) Rendición de cuentas.**

Cada ayuntamiento debe examinar las pruebas de las que dispone para responder a un total de **97 indicadores** que abarcan todos los aspectos de su actuación, tanto a nivel interno de organización, como en su labor de servicio y de estrecha relación con la sociedad.

Como apartados analizados figuran, entre otros, los trámites administrativos, los procedimientos de contratación, la gestión financiera y presupuestaria, la conducta ética de cargos electos, los canales u órganos de participación ciudadana, las herramientas de transparencia e innovación pública, así como la promoción de los Derechos Humanos con la igualdad, la diversidad, la inclusión y la cohesión social como ejes transversales.

**ELoGE EN EUSKADI**

La experiencia ELoGE llega a Euskadi en el año 2017 y de la mano de EUDEL tras convertirse en la **primera plataforma regional** a nivel europeo en acreditarse para poder otorgar el Sello en el conjunto de municipios de su territorio. A este logro contribuyó la relación estrecha de colaboración entre la Asociación de Municipios Vascos y el Consejo de Europa. Un trabajo conjunto que fructifica en iniciativas pioneras a nivel del Estado, como en 2013, el primer Código de conducta ética para cargos electos locales y la red de Ayuntamientos por la Transparencia, o en 2014, la evaluación europea de finanzas locales.

Entre 2017 y 2021 se han celebrado cuatro ediciones de ELoGE en Euskadi, en las que un total de **doce ayuntamientos** vascos han conseguido alzarse con la certificación de excelencia. Cuatro municipios han obtenido el sello en dos ocasiones, entre ellos Basauri y Urnieta, que lo renuevan este año. Esta edición ha supuesto las nuevas incorporaciones de Bilbao, Vitoria, Eibar y Andoain.

Los ayuntamientos vascos poseedores del Sello ELoGE son municipios **de todos los tamaños** de población:

- menos de 10.000 habitantes: Andoain, Legazpi y Urnieta*
- 10.000-20.000 hab: Bermeo, Ermua* y Laudio
- 20.000 – 70.000 hab: Basauri*, Eibar, Irun*, Leioa
- Más de 200.000: Bilbao, Vitoria-Gasteiz

**(dos sellos ELoGE).*